

*euskaraz hezi
berdintasunean hezi*



HEZKUNTZA LEGEA PROPOSAMENA

**Batuz
aldatu**

Hizkuntza-politikan
eragiteko adostasun soziala

2022ko urria

Izenburua:

Hezkuntza Legea.
Proposamena

Argitaratze-data:

2022ko urria

ATARIKOA

Eusko Legebiltzarrak 2021eko urriaren 14an egindako osoko bilkuran egun indarrean dagoen Euskal Eskola Publikoari buruzko Legea aldatzeko prozedura abiatu zuen. Hurrengo hamarkadetako hezkuntza-sistemaren oinarriak ezarriko dituen legearen eztabaidari zein onarpenari ekin zitzaion. Horrela, prozesu horren lehen helburua legea ardaztuko zuen hezkuntza-hitzarmena jorratzea eta onartzea izan zen.

Horren aurrean, 2021eko abenduaren 16an, Gasteizen, Eusko Legebiltzaren Kontseiluak, hezkuntzako eragile nagusiek, eta gehiengo sindikalak EAEko hezkuntza-hitzarmenari lotuta euskararen eremuan jaso beharrekoa zehazteko ekarpena egin aurkeztu genuen, bai eta euskarazko eredu orokortzearen aldeko adostasun historikoa bultzatu ere, *Euskaraz hezi, berdintasunean hazi* izeneko adierazpenean jasotakoa. Are gehiago, eragileok hitzarmen-zirriborroari zeinek bere ekarpenak egin arren, *Euskaraz hezi, berdintasunean hazi* adierazpeneko eskaera nagusiak jaso genituen gure ekarpenetan.

2022ko apirilean onartu zuen Eusko Legebiltzarrak hezkuntza lege berrirako oinarriak biltzen dituen hitzarmena. Horretan ere, proposamen hau adostu dugun eragileok zeinek bere irakurketa egin zuen, baina hizkuntzaren esparruan bada guztiok bat egiten dugun kezka: hitzarmenak ez du berariaz zehazten zein izango den hizkuntza-eredu berria, eta beraz, Hezkuntza Legearen garapenean zehaztaper handiagoak beharko dira. Hau da, legeak ongi jaso beharko du zein den hitzarmenean adostutako gaitasunetara iristeko bidea. Helburua definitu da, baina helburu lortzeko bidea edo modua oraindik ez da beharko lukeen zehaztasunarekin jaso. Hau da, hizkuntza-gaitasun horiek benetan lortuko direla bermatzeko hizkuntza-proiektuen hizkuntza-oinarria zehaztu behar da.

Horri erantzutera dator orain adostu dugun proposamena, hain zuzen ere, ikasleek hizkuntza-gaitasun egokia erdiesteko, ikasleen artean hizkuntza-bereizkeriarik sor ez dadin, hezkuntza-sistemak abian jarri beharko duen ikasteredu orokortu inklusiboaren definizioa.

Hezkuntza-hitzarmenaren inguruko eztabaidan, euskarazko eredu bakarraren aldekoa da adostasunik zabalena lortu duen gaia. Horrexegatik, hain zuzen ere, etorkizuneko hezkuntza-sistema eta beraz euskararen normalizazio-prozesua baldintzatuko duen legeari ekarpen bateratuan eta adostuan horixe jaso dugu, bai eta egoki definitu ere.

Askotan esan ohi da euskarak batzen gaituela, eta zalantzarik gabe, jarraian aurkeztuko dugun proposamena batasunaren eta adostasunaren isla da. Espero dezagun alderdi politikoek proposamen honek atzean duen babesari erreparatzea, eta hortaz, onartuko den lege berrian bertan jasotakoa txertatzea, baldin eta adostasun soziala ere oinarri izango duen araudia onartuko badute.

ZIOEN AZALPENA

Hezkuntzarako eskubideaz ari garenean, eta berezko hizkuntza gutxitua dagoen lurralde-eremuari lotzen bagatzaizkio, erdigunean kokatu behar da herritarrek hizkuntza gutxitua ikasteko duten eskubidea, eta, ondorioz, sistemak horren aurrean duen erantzukizuna.

Euskal Autonomia Erkidegoan berezko eta ofiziala den euskara ikasteko eskubidea aitortuta dago, eta aitortza horrek betebeharra ezarri behar dio sistemari. Hartara, euskara ikasteko eskubideari lotu behar diogu sistemak bermatu behar duela ikasle guztiek derrigorrezko hezkuntza amaitutakoan gaitasun egokia erdietsi behar dutela hizkuntza horretan.

Egoera gutxituan dagoen hizkuntza baten berreskurapen-prozesuan hezkuntzak nahitaezko funtzioa betetzen du, hain zuzen ere, hiztun berriak modu naturalean lortzeko. Hezkuntza-sistemak ekarpen ikaragarria egin dio azken hamarkadotan berreskurapen-prozesuari. Hartara, hezkuntza da ardatz nagusia egoera gutxituan dagoen edozein hizkuntzaren berreskurapenerako, belaunaldi berriek gaitasun egokia lor dezaten berma dezakeelako eta gizarte-kohesiorako giltzarria ere badelako.

Azken hamarkadotan hezkuntza-sistemak egin duen ekarpenari aitortza egin behar zaio: milaka eta milaka herritar euskaldundu dira. Halere, oraindik ezagutzaren unibertsalizaziotik urrun gaude. Badakigu zein den eredurik arrakastatsua eta zein den desegokiena, baina sistema bera berrikusi behar da. Izan ere, gogora dezagun, Euskararen Legean jasotzen den bezala, administrazioak gaitasun hori bermatzeko betebeharra du.

Horrek, gainera, zuzenean eragiten die gizarte kohesioari eta belaunaldi berrien aukera-berdintasunari. Izan ere, gizarte-bizitzan zein garapen profesionalean aurrera egiteko oinarrizkoa baita hizkuntza-gaitasun egokia eskuratzea, euskaraz eroso aritzeko gaitasuna eskuratzea. Horregatik, lege honek tresnak jarriko ditu ikasleek euskararen gaitasun egokiak lor ditzaten, hori bermatzea ezinbestekoa da gizarte kohesioan eta berdintasunean aurrera egiteko.

Berdintasun-printzipioari jarraiki, jatorriak, egoera sozioekonomikoak, egoera soziolinguistikoak edota bestelako irizpideek ezin dituzte baldintzatu ikasleek eskuratu beharreko gaitasunak -ez hizkuntzaren arloan, ez eta beste ezagutza-arloetan ere-. Aitzitik, herritarren arteko bereizkeria handia litza-teke jatorria, eremu soziolinguistikoa, egoera soziala edo bestelako irizpideren bat baliatzea ikasleei euskara-gaitasun egokia eskuratzea ukatzeko. Beste gai edo esparruetan bezala, kasu honetan ere, berdintasuna bermatzeko oinarrizko bidea izan behar du gutxien duenari gehiago ematea. Horregatik belaunaldi berri guztiei euskararen ezagutza egokia bermatuko dien hizkuntza-eredu orokortua ezartzen du legeak, aukerarik justuena eta berdinzaleena delako.

Egoera soziolinguistikoa dela, edota gizarte-bizitzaren eremu askotan gaztelania nagusi dela, legeak arreta berezia jarri behar dio euskararen ohiko erabilera funtzionalaren esposizio nahikoa bermatzeari, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak finkatzen duen bi hizkuntza ofizialak ezagutzeko eskubidea bermatzen laguntzeko.

Horretarako, legeak hezkuntza-sistemaren hizkuntza-eredu zehatza proposatzen du, konjuntzio-sisteman oinarritua. Sistema horrek berezko hizkuntzaren eta beste hizkuntza ofizialaren ezagutza bermatzen du, bai eta atzerriko hizkuntza batean gaitasunak eskuratzea ere, eta berezko hizkuntza irakaskuntzan ardatza izatea sendotzen du. Halaber, orain arte lortutako emaitzek justifikatzen dute hizkuntza-eredu hori ezartzea.

Legeak jasotzen duen hizkuntza-ereduaren azken helburua da ikasle guztiek, haien ohiko hizkuntza zeinahi dela, gaitasun egokiak izatea derrigorrezko hezkuntza amaitutakoan, eta, ondorioz, egun hizkuntzaren ofizialtasunak hezkuntzan eragiten duen ondorio juridikoari behar bezala erantzutea.

Horretaz gain, legeak azpimarra jartzen du hizkuntza-proiektuan, izan ere, horrek zehaztuko du, besteak beste, hizkuntzen trataera ikastetxearen barruan. Horrexegatik, hizkuntz-proiektua zein oinarriren arabera eraiki behar den zehazten du. Halaber, ebaluazioaren irizpide nagusiak ere ezartzen ditu, garrantzi handikoa izango baita ebaluazio iraunkorra bermatzea beharrezko neurri zuzentzaileak alait azkarren jartzeko.

Horrekin batera, ikastetxeetako hizkuntza-jarduna ere arautzen du legeak, ikastetxeak euskararen arnagune funtzional bihurtzeko, eta ikasleak euskaraz normaltasunez bizi daitezela.

Azkenik, curriculumean ere jarri du azpimarra legeak, hain zuzen ere, Euskal Curriculumean, zeinak euskal dimentsioa eta dimentsio unibertsala barne biltzen dituen ikuspegia jaso beharko duen, besteak beste, euskal kulturaren transmisioa belaunaldiz belaunaldi bideratuko dela ziurtatzeko, euskal kulturaren ezagutza bultzatuko da ikuspegi kritiko batetik.

Hezkuntza-sistemaren helburuez

I. artikulua: Helburuak

EAEko hezkuntza-sistemaren helburuak honako hauek dira:

- Ikasle guztiek, baldintza beretan, derrigorrezko irakaskuntza-aldia amaitutakoan berezko hizkuntzaren eta beste hizkuntza ofizialaren ezagutza egokia izatea, erabiltzaile independente aurreratu gisa jarduteko gaitasunarekin, bai eta hirugarren hizkuntza baten ezagutza ere.
- Euskararen erabilera bultzatzea, hizkuntzaren berreskurapen-prozesuari eta erabateko normalizazioari lagunduz.
- Euskal Herriko kultura-nortasuna jorratzen laguntzea, inguruneko geografian, gizarte-ekonomian eta kulturaren errotzea bultzatuz. Euskal Herriko kide gisa duten nortasun kulturala eraikitzen laguntzea, beren historia eta kultura propioak ezagutzuz, eta ikasleak beren ingurune geografiko, sozioekonomiko eta kulturalean sustraitzea sustatuz.

II. artikulua: Herri-aginteen egitekoak

Hezkuntza-sistemaren erantzukizuna da derrigorrezko hezkuntza amaitutakoan ikasle guztiek, ahoz zein idatziz, erabiltzaile aurreratuaren gaitasunak, gutxienez, eskuratzea berezko hizkuntzan, bai eta beste hizkuntza ofizialean ere. Horri lortze aldera botere publikoek euren eskumena eta ahalmenak baliatuko dituzte.

Ikasleen eskubideez

III. artikulua: Euskara ezagutzeko eskubidea

- Hezkuntza-sistemak bermatu beharko die ikasleei hizkuntza ofizialen ezagutza egokia, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren (HEEMB) B2 maila, gutxienez, eskuratzea, ikaslearen eta ingurunearen errealitate linguistikoa edota soziolinguistikoa zeinahi izanik.
- Gaitasun horiek eskuratzeko xedez, euskararen ikaskuntzari ordu nahikoak esleitu beharko zaizkio. Erregelamenduz ezarriko da euskararen irakaskuntzari ordu nahikoak ezarri ote zaizkion aztertzean aldiaren aldiako prozedura, eta ezarritako gaitasuna lortze aldera ordu kopurua nahikoa ez den kasuetarako, ikastegiaren hizkuntza-proiektua aldatzeko prozedura eta hertsatzeko bitartekoak.

EAEko hizkuntza-ereduaz

IV. artikulua: Hizkuntza-ereduaren printzipioak

Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeen hizkuntza-eredua honako ardatzen arabera eraikiko da:

- Euskara, Euskal Autonomia Erkidegoko berezko hizkuntza, hezkuntza sisteman irakas- eta ikas-hizkuntza normalizatua izango da, eta jardueretan erabilera normal eta orokorreko hizkuntza izango da.
- EAEko hezkuntza sistemaren hizkuntza-ereduak konjuntzio-sistemari jarraituko dio; hau da, hizkuntza-eredu orokor eta inklusiboa izango da eta ez ditu ikasleak banatuko hizkuntza ofizialen arteko aukeraketaren arabera.

- c) Hizkuntza ofizialetako bat (edo biak) ezagutu gabe sartzen diren ikasleei arreta berezia eskainiko die sistemak.

V. artikulua: Langileen hizkuntza-gaitasuna

1. Irakasleei euskararen derrigorrezko ezagutza ezarriko zaie, erabiltzaile gaitua, C1 maila, gutxienez, irakaskuntzan jarduteko.
2. Irakasleak ez diren langileei ere euskararen derrigorrezko ezagutza ezarriko zaie, haien funtzioaren arabera.
3. Euskara-gaitasuna ez duten langileei prestakuntza emango zaie, beren zereginak euskaraz egin ditzaten.

VI. artikulua: Irakasleen prestakuntza

Irakasleen prestakuntzaren ardatzetako bat izango da euskal kulturaren ezagutza zabala eta eguneratua izatea, horrela soilik lor daitekeelako irakasle horien erreferenteak euskal kulturaren eremukoak izatea eta ikaslegoari ezagutza eta zaletasun hori transmititzeko baldintzak ziurtatzea.

Ikastetxeetako hizkuntza-proiektuaz

VII. artikulua:

Funts publikoekin sostengatutako ikastetxeek hizkuntza-proiektua prestatu beharko dute, haien hezkuntza-proiektuaren atal gisa. Proiektuak ikastetxearen errealitateari erreparatuko dio, eta azken helburua izango da ikasleek hizkuntza ofizialetan B2 mailaren gaitasunak eskuratzea, gutxienez, eta hirugarren hizkuntzan B1 mailarena, gutxienez.

VIII. artikulua:

Ikastetxearen hizkuntza-proiektuak legeak ezarritako hizkuntza-ereduaren printzipioak aplikatu beharko ditu, eta honako elementu hauek jaso beharko ditu, besteak beste:

- a) Euskara ikas- eta irakas-hizkuntza gisa hartzea.
- b) Euskararen ikaskuntza-prozesuan, modu orokorrean zein banaka, ikastetxearen errealitate sozio-linguistikora egokitze irizpide orokorrak. Euskara gutxiago duenari gehiago ematea izango da oinarria.
- c) Curriculumaren eta ikastetxearen helburuak zehaztea, bai eta eskolaz kanpoko jardueren proposamenak ere, euskararen erabilera ziurtatzeko.

IX. artikulua:

Hizkuntza-proiektuak bost urtetik bost urtera ebaluatuko dira ikasleen hizkuntza-errendimendua neurtuz eta, hala badagokio, egokitu egingo da, hizkuntza-helburuak eskuratzea bermatzeko.

X. artikulua:

Hizkuntza-proiektuak legeak bildutako irizpideak jaso ezean, edota hizkuntza-errendimenduari buruzko ebaluazioarekin gaitasunak bermatzeko egokia ez dela ondorioztatzen bada, hizkuntza-proiektua aldatzeko beharra izango da, ikastetxearen ekimenez edo hezkuntza-administrazioaren kabuz. Hizkuntza-proiektua egokitu ezean, ez da programa-kontratua sinatzerik izango.

Curriculumaz

XI. artikulua: Curriculumaren definizioa

Curriculumaz ari garelarik, Euskal Curriculumaz ari garela ulertuko da, euskal dimentsioa eta dimentsio unibertsala barne biltzen dituen ikuspegia jasotzen duen Curriculum, hain zuzen. Ikuspegi honi erantzunez zehaztuko dira ikasleen irteera profila, metodologia eta ebaluazio-ildoak eta lorpen adierazleak. Horretarako, hiru arlotan berariazko lanketa bideratuko da:

- Irakasleak curriculumaren ulerkera honetaz jabetzeko eta berau garatzeko prestatzea. Horretarako:
 - Goi-mailako ikasketen eta gradu mailako ikasketen curriculumak eguneratuko dira.
 - Etengabeko prestakuntza-programak indartuko dira.
- Curriculumaren ulerkera honi erantzuten dioten ikasmaterialak eta ikas-baliabideak garatzea eta berauen erabilera arautzea.
- Etengabeko ikerketa, ebaluazioa eta berrikuntza bermatuko duen zerbitzua artikulatzea, unean uneko gizarte aldaketei, premiei eta erronkei erantzun eraginkorrak emateko.

XII. artikulua: Curriculumaren helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sisteman hezkuntzaren helburuak lortzera bideratutako irakaskuntzak osatzen dituzten arloen eta ikasgaien curriculum, bai eta beste edozein jarduera ere, honako hauetara bideratuko da:

- a) Euskara ikastea eta euskararen erabilera sustatzea, komunikaziorako ez ezik, Euskal Herriko nortasun kultural eta historikoa interpretatzeko eta transmititzeko ere, gizarte-kohesiorako ezinbesteko elementua den heinean.
- b) Europako, eta, oro har, munduko, hizkuntza- eta kultura-aniztasuna errespetatzeko eta aitortzeko prestakuntza, bai eta eleaniztasun horren izaera aberasgarria ere, kultura desberdinen arteko harremanak ezartzeko oinarri gisa.
- c) Euskal Kulturaren Transmisioa belaunaldiz belaunaldi bideratuko dela ziurtatzeko, euskal kulturaren ezagutza bultzatuko da ikuspegi kritiko batetik.

Ebaluazioaz

XIII. artikulua:

Eusko Jaurlaritzak eta ikastetxeek beharrezko diren neurriak ezarriko dituzte hizkuntza-helburuak lortzen direla bermatzeko.

XIV. artikulua:

Eusko Jaurlaritzak ebaluazio-tresna independenteak ezarriko ditu lortutako mailak balioztatzeko, eta jarraipen-sistema eraginkor bat abian jarriko du ebaluazioaren emaitzak hobetzeko eta helburuak lortzeko.

XV. artikulua:

Ikastetxeek Jaurlearitzak ezarritako ebaluazio-prozedurari erantzun, eta beharrezko neurri zuzentzaileak ezarriko dituzte.

Ikastetxeetako hizkuntza-jardunaz

XVI. artikulua:

Ikastetxeetan euskararen erabilera lehenetsiko da barne eta kanpo jarduera-harremanetan eta profesionalen arteko harremanetan, bai eta ikasleen eta irakasleen arteko harreman formal eta ez-formaletan ere.

XVII. artikulua:

Euskara izango da hezkuntza-administrazioko ohiko hizkuntza.

XVIII. artikulua:

Ikastetxeak kontratatutako zerbitzu-emaitza ere euskararen erabilera normalizatua bermatuko dute.

XIX. artikulua:

Euskara erreferentzia-hizkuntza gisa indartuko da, bai eta ikasleen erabilera aktiboa sustatu ere.

XX. artikulua:

Euskara izango da ikastetxeetatik kanpo begirako jardueretan adierazpide-hizkuntza.

Irakaskuntzarako sarreraz eta horniketaz

XXI. artikulua:

Euskal Autonomia Erkidegoko irakaskuntza-sisteman sartzeko euskararen ezagutza-maila aurreratu, gutxienez, egiaztatu beharko da.

XXII. artikulua:

Probak euskaraz izango dira, eta euskal kulturari buruzko ezagutzak barne hartu beharko dituzte.

Ikastetxeetatik kanpoko eskaintzaz

XXIII. artikulua:

Toki-administrazioek zuzenean edo zeharka antolatzen dituzten jardueretan, 16 urtez beheragoko gazteei zuzenduta badaude, euskara erabilera normal eta orokorreko hizkuntza izango da.

Euskararen herriko beste lurraldeekiko lankidetzaz

XXIV. artikulua:

Jaurlaritzak lotura historiko, linguistiko eta kulturala duten euskararen gainerako lurraldeetako ikastetxeak sustatu eta lagundu behar ditu.

XXV. artikulua:

Euskararen gainerako lurraldeetako instituzioekin lankidetzaz-hitzarmenak garatuko ditu.

Aurreko artikuluan jasotakoa betetzeko ikastetxeak sustatzeko helburuarekin, Jaurlaritzak lankidetzaz-akordioak egin ditzake ikastetxe horiek dauden lurralde eta herrialdeetako erakunde eta entitateekin.

Lanbide-heziketaz

XXVI. artikulua:

Lanbide-heziketako ikasketetako curriculumek bermatu behar dute ikasleek ikasketei lotutako lan-funtzioak euskaraz egiteko gaitasun teknikoa eta praktikoa eskuratzea.

XXVII. artikulua:

Maila ertaineko lanbide-heziketa amaitutakoan, ikasleak hizkuntza ofizialetan B2 mailaren gaitasunak, gutxienez, eskuratuko ditu.

Kirol-ikaskuntzaz

XXVIII. artikulua:

Goi-mailako teknikariaren titulua lortzeko, ikasleek C1 hizkuntza-gaitasuna egiaztatuko dute, eta, horretarako, ikasketen curriculumak gaitasun hori eskuratzeko tresnak eta baliabideak jarriko ditu.

Arte-ikaskuntzez

XXIX. artikulua:

Ikasleei arte-ikaskuntzaren barruan dauden ikasketa guztiak euskaraz egiteko eskubidea bermatuko zaie.



euskaraz
berdintasunean



hezi

hazi



hezi

euskaraz
berdintasunean

hazi



euskaraz hezi
berdintasunean hazi